



Nerea Cassi - Naroa Etxeandia  
Aixerrota BHI, 14-15

# Aurkibidea

---

• J.K Rowling .....	2
• Sarrera.....	2
<i>Harry Potter eta sorgin-harria</i>	
• Kokapena .....	3
• Gaia .....	3
• Argumentua .....	3
• Istorioa .....	4
• Pertsonaiak .....	5
• Egituraketa .....	6
• Baliabideak .....	6
• Iritzia .....	7
• Biblio-Webgrafia.....	8

# J.K. Rowling

---



Joanne Rowling Yate, Britania Handian jaio zen 1965an. Frantsesa ikasi zuen Exeter unibertsitatean eta lan egin zuen ingeles irakasle moduan. *Harry-Potter eta sorgin-harria* liburua idaztean, editorial askok ez zuten liburua erosi nahi. Azkenean publikatu egin zen 1997an eta liburu asko saldu ziren. Zazpi liburu egin zituen Harry Potter-ri buruz eta zinemara eraman ziren.

2001ean bi liburu argitaratu zuen; gaztelaniaz tituluak: *Animales fantásticos y dónde encontrarlos* eta *Quidditch a través de los tiempos*. Beste eleberri batzuk ere idatzi ditu: *Los cuentos de Beedle el Bardo* (2008), *Una vacante imprevista* (2012), *El canto del cuco* (2013), *El gusano de seda* (2014).

## Sarrera

---

J.K. Rowling-en nobela honek Harry du protagonista. Harry Ingalaterran bizi da, Privet Drive auzoan hain zuzen, baina Hogwarts eskolara joaten behar du kurtsoan han bizitzeko.

J.K. Rowling-en nobeletan ohi den bezala, magia, fantasia eta irudimenezko munduak eta pertsonaiak topatzen dira liburu honetan, benetako munduaren eta Harry Potter-en munduaren arteko diferentzia nabarmenduz. 1997. urtean idatzia, gaur eguneko nobela da, oraingoa den historia kontatzen du.

# *Harry Potter eta sorgin harria*

---

## Kokapena

---

Denbora aldetik, esan daiteke XX. mendean kokatuta dagoela, 90eko hamarkadan hain zuzen. Istorioa Ingalaterran gertatzen da, idazleak asmatutako lekuetan eta benetan existitzen diren lekuetan. Asmatutakoen artean Hogwarts magia eskola, eta Diagoi kalezuloa dira aipagarrienak. Benetan existitzen diren lekuak ere agertzen dira, adibidez, Privet Drive-ko etxea, non Harry bizi den bere familiarekin.

Beste leku batzuk ere aipatzen dira, baina garrantzi gutxikoak, King Cross tren geltokia, adibidez. Horretan argi geratzen da diferentzia errealitatea eta irudimenaren artean, King Cross geltokian idazleak asmatutako trena (9 <sup>3</sup>/<sub>4</sub>) agertzen delako.

## Gaia

---

Gai ezberdinak lantzen ditu obra honek: batez ere, familia eta adiskidetasunaren garrantzia.

## Argumentua

---

Harry Potter mutil umezurtza da, eta bere osaba-izeba nazkagarriekin eta bere lehengusu Dudleykin bizi da. Bakarrik eta triste sentitzen da, inork maite ez duelako. Egun batean, gutun sinple batekin bere bizitza osoa guztiz aldatzen da. Hogwarts eskolan onartu dutela jakinarazten dio gutun horrek, eta horrekin batera, Harryk jakiten du azitia dela eta bere gurasoak ere izan zirela. Eskola hartan benetako lagunak egiten ditu eta zenbait etsai ere bai.

# Istorioa

---

Harry Potter, jaio berritan umezurtz geratu da, eta bere osaba-izeba eta lehengusuarekin bizi da. Familia horretan ezer izango ez balitz bezala tratatzen dute, ez dutelako maite. Baina Harry, nagusi egiten denean, bizitza osoa gezurraren gainean bizi izan duela konturatuko da, hamaikagarren urtebetetzean hain zuzen; bai bere gurasoen heriotzaz ere, eta izandako bizi egoerari buruz. Hogwarts eskolan onartu dutela jakinarazten dion gutun bat jasotzen duenean ohartzen da horretaz guztiaz. Harryk pozarren hartzen du eta hara joateko gogo itzelak ditu, eta nahiz eta bere izeko-osabek nahi ez izan, Hagrid magia eskolako zaindariak Harry eramango du eskola hartara osaba-izebei kasurik egin gabe.

Hogwarts eskolara heldu bezain laster, Hagridekin joango da aztiak beharrezkoak dituzten tresnak erostera eta Hagridek hontz bat oparitu dio Harryri, azti gehienek bat dutelako. Orduan hasten da Harryren urte berria Hogwartsen, bertan lagun berriak egiten ditu. Hasierako trenean, Ron ezagutzen du, baita Hermione ere, beraien lehenengo ikasturtea izango dena ere. Gryffindor etxean bizitzeko sailkatuak izango dira hiru lagunak urte horretan zehar. Eta nahiz eta lau solairu egon hirugarrenera joatea urte horretan debekatuta dago, sorgin harria bertan ezkutatuta dagoelako eta inork ezin du eskuratu. Harryk ispilu bat aurkituko du gazteluan, horretan bakoitzaren nahiak islatu egiten direlarik, baina Dumbledorrek esaten dio laster kendu egingo dutela, menpekotasuna sortzen duelako.

Urtea aurrera joan ahala, magia klase ugari izaten ditu Harryk, eta magiari buruzko gauza berri asko ikasten ditu, baita bere bi lagunekin (Ron eta Hermione) hainbat abentura igarotzen ditu, arazotan sartuz baina beti konponbidea aurkituz. Hiru lagunek Voldemort-i –Harryren gurasoak hil zituen aztia eta Harry hiltzen saiatu zena baina lortu ez zuena– laguntzen zion pertsona Snape zela uste zuten eta hori baieztatzeko asmoz, hirugarren solairura joan ziren. Baina han konturatu ziren laguntzailea Quirrel maisua izan zela. Quirrelek guztia azaldu zien, Voldemortentzat lan egiten zuela

eta sorgin harria lortu behar zuela esan zien. Baita aipatu zuen, harria eskuratzeko harria erabiliko ez zuen pertsona bat behar zuela, eta Harryk eskuratu ahal zuela. Quirrel Harryrengana hurbildu zen harria hartzeko asmoz baina Harryk ukitu bezain laster erretzen hasi zen. Hurrengo egunean Harry ospitalean esnatu zen, Quirrellen heriotzaren berri izanez eta Voldemorten ihesaz. Harry azkenik etxean bezala sentitu zen, urte askoan sufritzen egon ondoren.

## Pertsonaiak

---

**Harry Potter.** Harry bi urte zituela Lord Voldemort gaiztoak bere gurasoak hil zituen. Arrazoi ezezagunengatik, Harry ezin izan zuen hil, baina ondorioz botere izugarriak eman zizkion. Ile beltza du eta begi berdeak, bere amaren antzekoak. Bere izeba-osabekin bizi da eta hauek oso gaizki tratatzen dute. Zorionez, Hogwarts eskolan benetako lagunak egiten du, Hermione eta Ron. 11 urterekin oso mutiko ausarta eta ona da. Bere kopetan tximista formako orbaina du.

**Ron Weasley.** Ron familia pobre bateko 6. semea da. Familian 6 seme eta alaba bat dira, denak ilegorriak. Untxizulo izeneko etxe zahar batean bizi dira. Bere aitak ministerioan lan egiten du baina ez du oso postu ona. Ron oso leiala eta behar denean ausarta da, baina oso lotsatia. Izugarri beldurtzen dute armiarmek. Harryren lagun hoberena bihurtzen da lehen momentutik.

**Hermione Granger.** Hermione Harry eta Ronen lagun mina da. Bere gurasoak magia gabekoak dira, hau da, Muggleak. Hermione oso neska azkarra da, beti irakurtzen eta gauza berriak ikasten dago. Ikasle bikaina izan arren, Harry eta Ronekin bihurrikeria askotan sartzen da, baina bere buru argiarekin beti lortzen du aurrera joatea. Sorgin bikaina, ile kizkur eta marroiarekin, oso pertsonaia inportante bihurtzen da, berari esker, Harry misterioak konpontzeko gai izaten delako.

## Egituraketa

---

Kapituluka dago egituratuta nobela hau, hain zuzen 17 kapitulutan banatzen da. Autoreak istorioa kontatzeko egitura lineala erabili du, baina saltoak egin ditu, haien artean, Harry umezurtz geratu zenetik jaioberria zenean, hamaika urte bete zituen egunera arte.

## Baliabideak

---

Prosazko lanetan honako baliabideak aipa daitezke:

Espresera aldetik, narrazioa eta elkarrizketak dira nagusi. Sentimenduen deskribapenak garrantzi handia dute istorioan zehar, Harry bakarrik eta triste sentitzen da bere gurasoak hil zirenetik eta bere osaba-izeba eta lehengusua ez diote bakardade hori gainditzen laguntzen. Elkarrizketa asko ageri dira nobelan zehar pertsona guztien artean.

Istoria narratzaile orojakile batek kontatzen du, gertatzen den guztia badakielako, pertsonaien sentimenduak badakizki, gertaeren arrazoiak, baita geroago zer gertatuko den ere, hau da, guztia dakien narratzailea aipatzen da.

Kontatzeko estiloaren arabera landua dela esan dezakegu.

# IRITZIA

---

J.K. Rowlingen eleberri hau guztiz gomendagarria da. Idazleak mundu guztiz irudimenezkoa sortu du, benetako munduarekin nahastuaz. Lehen momentutik harrapatzen du eta irakurlea istorioan guztiz sartzea lortzen du, Harry Potterren munduan balego bezala.

Istoria guztiz berria eta originala da, eta misterioz betea. Trama *Harry Potter eta Sorgin-Harria* liburuan bertan aurkezten da, baina ez du guztiz irtenbidea aurkitzen zazpigarren obrara arte, "Harry Potter eta herioaren erlikiak".

Gai asko tratatu arren, gustukoena gertatzen dena adiskidetasuna da. Harry, Ron eta Hermionek duten adiskidatsuna oso berezia eta polita da. Edonork izan nahi luke lagun hain min, eurak hirurak diren bezalakoak izan.

Harryrenak oso obra famatuak dira mundu osoan; lehenengo ingelesez idatzita, ondoren 68 hizkuntzatarara itzuli dira eta 400 milioi liburu baino gehiago saldu dira. Horrek erakusten du zein istorio bikaina sortu duen J.K. Rowlingek, gazte belaunaldi oso bat irakurle bihurtuaz. Eta irakurri ez duenak seguru ikusi dituela filmak, oso famatuak horiek ere.

Laburbilduz, ezinbestekoa bihurtzen da eleberri hau irakurtzea, irakurri duten guztiak Harry Potterren jarraitzaile bihurtzen direlako.



# BIBLIO-WEBGRAFIA

---

*Harry Potter eta Sorgin Harria*, J.K. Rowling. Elkar

- [http://eu.wikipedia.org/wiki/Harry\\_Potter\\_eta\\_Sorgin\\_Harria](http://eu.wikipedia.org/wiki/Harry_Potter_eta_Sorgin_Harria)
- <http://www.casadellibro.com/libro-harry-potter-eta-sorgin-harria/9788483317037/743423>
- <http://www.galtzagorri.org/euskara/argitalpenak/harry-potter-eta-sorgin-harria?p=1>
- <https://bgliburuak.wikispaces.com/Harry+Potter+eta+sorgin+harria>
- <http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/irakurgai-mailakatuak->
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>